*Kalitatearen aldetik kaltegarria izateaz gainera, herri mailan eragin zuzena izan-go luke aldaketak, azaltzen du, kezkatu, Mari Jose Garmendia Ingurumen arduradunak. Jangela naturala bezain preziatua mantentzeko laguntza eskatzen dio Garmendiak administrazioari, Segurako moko fineko ikasleek, dendari txikiek eta baserritarrek eskertuko luketen laguntza.*



Hortzetako eskuilak kolore ezberdinen arabera ordenatuta egoten dira, umeek bereiz ditzaten.

Anderren ustetan, askoz hobea da bertako produktuekin prestatutako bazkaria. *Askoz ere gozoagoa da, dio, irribarreari eutsi ezinik.*

Jon Mugikak 11 urte dauzka eta Anderrekin batera dabil, buru belarri, ikaskideen eskaerak ase nahian. *Nahiago dut niri zerbitzatzea baina tokatu egin zait, aitortzen du. Nire gurasoak bertako den-detara joaten dira erostera; ez gara supermerkatuetara joaten, dio, ausarti. Miren Mugika laugarren mailan dago. Ez dio muzinik egi-*

### BESTE ESPERIENTZIA INTERESGARRI BATZUK

IKASTURTEA	IKASTETXEA	HERRIA	PROIEKTUA	ARDURADUNA
2001/2002	Serantes LHI	Santurtzi	Intercambio de juguetes – Día del Juguete	José Manuel Echevarría
1998/1999	EPA Irun	Irun	Consumo responsable como bienestar para la salud	Cándido Cerro
2002/2003	Samaniego LHI	Gasteiz	Testu-liburuen berrerabilpena	Raúl López de Munain
1998/1999	Haurtzaro Ikastola	Oiartzun	Kontsumerismoa: Irtenbidea	Ramón Gorrotxategi
1999/2000	Intxaurren Ikastola	Donostia	Birzikla dezagun, birzikla gaitzen	Inés Fernández
2000/2001	Iturzaeta LHI	Getaria	Eskolaren Hondakinak	Encarna Urzaiz



*Gure eguneroko beharrek (janaria, arropa, energia, garraioa...) inpaktu nabariak dakarzkiete ingurumenari, lehengaiak agortu egiten ditugulako eta behar horiek kutsadura eragiten dutelako. Bizi-kalitatea berraztertu eta adostu beharreko kontzeptua da, planeta bizitzeko moduko lekua izatea nahi badugu. Kontsumistak gara? Nola izan gaitezke kontsumitzaile arduratsuak?*



## Kontsumistak ala kontsumitzaile arduratsuak gara?

**KONTSUMITZAILEEN** ingurumen-sentiberatasunari esker, ingurumena zaintzen duten edo hain kutsagarriak ez diren prozesuen bidez elaboratutako produktuen eskaria gero eta handiagoa da. Kontsumo jasagarria gure oinarrizko beharrak asetzen dituzten eta bizi-kalita-

te hobe ematen diguten zerbitzu eta produktuak erabiltzean datza, betiere baliabide naturalen eta material toxikoen kontsumoa eta zerbitzu edo produktuaren bizi-ziklo osoko hondakin eta kutsagarrien kopurua ahalik eta gehien murriztuz, hurrengo belaunaldien

etorkizuna ez hipotekatzeko xedez. Ikastetxean eta eguneroko erabaki guztietan gauzatu ahal ditugu kontsumo jasagarriaren aldeko ekimen txikiak. Helburu nagusiak kontsumoa murriztea izan behar du; eta, horrekin batera, *hiru B-en araua* (berreskuratzea, birziklatzea eta berrerabiltzea) aplikatu behar da.

Ekoauditoretza egiteko lehenengo urratsa egoera aztertzeaz eta aurrean dugun egoera ezagutzeko datuak batzeaz arduratuko den batzordea eratzea da. Bildutako datuak aintzat hartuta, ikastetxearen egoera hobetzeko ekintzak taxutu ahal dira.



Zaborrak birziklatzea garrantzi gutxiko lorpena dela pentsa dezakegu, baina bizimodu jasagarria iristeko beharrezko jokaeretakoa bat da.



## Ikus ditzagun kontsumo jasangarriaren aldeko proposamen batzuk:

### Eskolako materiala

Papera bi aldeetatik erabili ahal da, eta borragomaren azken erdiak lehenengoak bezain ondo garbitzen du. Erabilitako gutunazalak berriro bidali ahal dira. Aurreko urteetako liburuak kontsultarako berrerabil daitezke.



Kontuz ibili behar dugu itsasgarriekin eta zuzenketak egiteko produktuekin, gai toxikoak eduki ditzakete eta.

Erabilitako arropak eta jostailuak aprobetxatzea naturarekin eta gure planetarekin solidarioa izatea da, eta horrek sekula ez luke izan beharko inoren izen ona zikintzeko aitzakia. Paperezko kutxak, plastikozko ontziak, tetrabrikak... birziklatzeko paperaren biltontzi moduan erabil daitezke, plastika gelan, edota haziak ereiteko ere.

### Energia

Berokuntzako gastua murrizteko, galdararen funtzionamendua optimizatu eta berogailuak ondo erregulatu behar dira. Horrela, dirua aurrezteaz gain, CO<sub>2</sub> gutxiago isuriko dugu atmosferara.

Argiak, behar ez diren guztietan itzali behar dira (gelatik irtetean, bai, noski, baina baita eguzkiak gogor jotzen duenean ere: gortinak itxiz edo arbelean argi bat ipiniz saihestu ahal dira izpien islak). Guztiok erabiltzeko eremuetan (pasilloetan, komunetan...) kontsumo txikiko bonbillak jarri ere murriztu daiteke kontsumoa.

### Ura

Txorrotak eta komun-ontziko tangak ondo ixten direla eta urik galtzen ez dutela ziurtatu behar da, eta behar direnean baino ez erabili. Hustubideak ez dira zaborteziak: ezin dira zarama botatzeko erabili.

### Garraioa

Eskolara joateko aukerarik onena oinez edo bizikletaz joatea da. Bide luzea bada, garraio publikoa garraio pribatua baino hobea izaten da ia beti.

### Janariak

Elikadurak, gure osasuna zaindu ez ezik, gure ondoko belaunaldiakiko solidarioa izan beharko luke. Gure dietan ez ditugu proteina eta koipe gehiegi sartu behar.

Jolastorduan, hobe dugu opil industrialak eta zabor-janaria



*Dosifikatzailearen txorroitei esker askoz ere ur gutxiago gastatzen da.*



*Zoritzarrez, hirietan zehar bizikletaz ibiltzea oraindik utopia baino ez da. Halere herri askotan eguraldi ona egiten duenean ibil daiteke.*

baztertu; ez dira osasungarriak eta, gainera, bildukin asko dauzkate.

Janaria, etxetik, behin eta berriz erabiltzen diren ontzietan ekartzea komeni da (horrela ez dugu plastikozko poltsarik edo aluminio-paperik erabili beharko).

Produktu osasungarriak eta tokian tokikoak kontsumitzea da onena (merkantzien garraioan aurrezten da).

### Festak

Festetan (Gabonetan, inauterietan, urtebetetzeetan...), erabili eta botatzeko materialak saihestu egin behar dira.

Papera, kartoia, plastikoa eta arropa zaharrak berrerabiliz, mozorroak egin daitezke.



*Festatxo bat prestatzerakoan zenbat hondakin sortuko dugun kontuan hartzekoa da.*

Behin baino gehiagotan erabiltzen diren ontzi eta mahai-tresnak aukeratzea komeni da. Erabili eta botatzeko oso erosoa da, baina ez da jasangarria.



*Ikastetxeetan berogailuek dakartzate gastu handienetarikoa (San Frantzisko Eskola Publikoko jangela).*

### Bibliografia

- ♦ COMÍN, Pilar; FONT, Bet. **Consumo sostenible. Preguntas con respuesta.** Mielenrama Bilduma. Icaria Argitaletxea, Bartzelona, 1999.
- ♦ <http://www.forumambiental.org/cast/archivos/entorn02.htm>





# Uraren kontsumoa



## HELBURUAK

- Ura ez kutsatzearen garrantziaz eta uraren erabilera okerraz jabetzea.
- Ur-kontsumo arrazionalerako ohitura arduratsuak barneratzea.

### Jardueraren garapena

Erantsitako fitxak erreferentzia-tzat hartuta, uraren zikloari eta uren kutsapen indiskriminatuari buruzko ipuin bat kontatu ahal diezue ikasleei.


*Hiru ur tanta* ipuina proposatzen dizuegu. Hiru tanta adiskidek hodeietatik erreketara eta hortik itsasora egiten duten bidaia kontatzen du. Hauxe izan liteke kontaketa ikurritza: *Ibaiak min-tzatuko balira...* Ibaietako urak zikintzeak dakartzan ondorioak ulertarazteko istorioa da.



### Iturria:

**Kontsumoa // Consumo. Curriculum materialak // Materiales curriculares Haur Hezkuntza 2. zikloa // Educación Infantil. ciclo 2º**  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, 1993.





# Jogurt naturala nahi duzu?

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.
- PLASTIKA.

## HELBURUAK

- Janariak etxeko eran prestatzea.
- Janari naturalen onurez jabetzea.
- Esnekiekiko interesa sustatzea.

## MATERIALAK


- ◆ Kazola.
- ◆ Zurezko koilara.
- ◆ Ontzi handia.
- ◆ Beirazko sei edalontzi.
- ◆ Oihal zatia (ahal bada, artilezkoa).

## Osagaiak

- Litro bat esne.
- Pote bat jogurt.

## Jogurtaren errezeta

1. Berotu esnea kazolan su bizitan, irakin arte, eta eragin bitartean koilaraz. Ondoren, kendu sutatik eta utzi hozten.
2. Ipini jogurta ontzi handian, eta eragin ore homogeneoa geratu arte. Esnea hoztu eta gero, nahastu jogurtarekin: erantsi esnea pixkana-pixkanaka, bi osagaiak ondo nahas daitezen.
3. Estali ontzia oihalaz, eta utzi leku epel batean 6 edo 8 orduz.
4. Banatu jogurta edalontzietan eta, jan baino lehen, sartu hozkailuan eta eduki bertan ordu bat edo biz.



## Gure jogurta eta dendakoa


Erosi jogurt bat dendan edo ekarri etxetik.

Begiratu dendan saltzen den jogurtaren etiketari: eskolan erabili ditugun osagaiez gain, zer gehiago daukate?; badu kontserbagarririk?, nolako ontzian dator?, berriro erabil daiteke ontzi hori?, eta gurea?

Gero, dendako jogurta eta eskolan egindakoa edalontzietan banatu. Ikaskideek, begiak estalita, biak das-tatuko dituzte, gustukoena aukeratzeko.

- Bi jogurtetarik zein gomendatuko zenukete?
- Nola aurkezten eta iragartzen da dendako jogurta?
- Amaitzeko, prestatu gure jogurta iragartzeko kartela.





AZTERTZEN

LEHEN HEZKUNTZA

2. zikloa

ekin eta ekin

# Komuneko papera

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.
- HIZKUNTZA.
- ARTE HEZKUNTZA

## HELBURUAK

- Behatzea eta datuak bildu eta sailkatzea.
- Kontsumo-ohiturak aztertzea eta horien gainean eztabaidatzea.
- Gastua zuzentzeko proposamenak egitea.

**KOMUNeko PAPERa**, funtsean, aurpegia, eskuak eta ipurdia garbitu eta sikatzeko erabiltzen dugu, baina ikasgelan ere erabili ohi dugu: zenbat erroilu astean?, eta hilean?, eta urtean?

### Ikastetxean paseoan


Zenbat komun daude ikastetxean? Zeinetan gastatzen dira erroilu gehien? Nork ipintzen ditu erroilu berriak komunetan? Zenbat ipini behar dira egunero?

### Kontsumoa kalkulatu


Komuneko paperak errazago mozten laguntzen duten lerro ziztatutak dauzka, paper zerrenda orritxotan banatzen dutenak. Kontsumoa kalkulatzeko zeregin erraza da, paketeetan erroiluaren luzera adierazita dagoelako, bai metrotan, bai orritxotan. Papera erabili baino lehen, aldi bakoitzean gastatzen ditugun orritxoak zenbatu egin ditzakegu eta, orritxoak neurtuta, erabilaldi bakoitzean zenbat metro gastatzen dugun kalkulatu dugu.

Era horretan, ikasgelan inkesta egiten badugu, erraz kalkula daitezke komunera joateko batez besteko maiztasuna eta, pertsonako, ikasgelako eta eguneko batez beste erabiltzen dugun papera. Gero, zifra hori ikastetxeko gelen kopuruarekin eta asteko, hileko eta urteko egun kopuruarekin biderkatuko dugu, erabiltzen dugun paper kantitatea arin-arin hazten dela konturatzeko. Egindako kalkuluak egiaztatzeko, ikastetxearen garbiketa egiten duen enpresak emandako informazioarekin alderatu ahal ditugu.

Tona bat paper egiteko, 1.500 kg zur (2,1 hektarea lursail) behar direla kontuan hartuta, zakarrontzira edo komunetik behera botatzen dugun paper higienikoa ekoizteko, zenbateko zuhaitz-azalera behar den kalkulatu ahal dugu.







# Zer erosten dugu?

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.
- HIZKUNTZA.
- ARTE HEZKUNTZA

## HELBURUAK

- Behatzea eta datuak bildu eta sailkatzea.
- Kontsumo-ohiturak aztertu eta horien gainean eztabaidatzea.
- Kontsumoa hobetzeko alternatibak proposatzea.

**IKASTALDEA BITAN** banatuko dugu, azterlan xume bat egiteko. Talde bat ikastetxetik hurbilen dagoen supermerkatu edo *hiper*-era joango da, eta bestea,

*dena euro batean* edo *euro batetik gora* saltzen den denda batera joango da. Taula batean, honako behaketa honen ondorioak irudikatuko dituzte:


## Salgaien zerrenda

ESKAINZA BEREZIETAKOAK	MAIZEN EROSTEN DIRENAK	BEHARREZKOAK	EZINBESTEKOAK

- Zer salgai daude eskaintzan? (Gauza asko eskaintzen zaizkigu, baina eskaintza bereziko produktuei begiratuko diegu, hau da, apalategi-buruetan kartelez iragartzen direnei).
- Zer produktu erosten dira maizen? (Kutxa erregistratzaileetan ikus dezakegu hori, produktuak banan-banan pasatzen dira eta).
- Produktu guztietarik, zein dira, zuen ustez, beharrezkoak?

- Eta beharrezko deritzezuen horietarik, zein dira ezinbesteko, eta zein ez dira hain beharrezko? (galdera horri erantzun aurretik, gogoratu Hirugarren Munduko jendearen bizimodua).
- Emaitzak taldean eztabaidatu eta gero, gure sailkapena (grafiko baten bidez), kontsumo-ohiturei buruzko gogoetak, eta kontsumoa hobetzeko proposamenak mural batean irudikatuko ditugu.





# Zer ordaintzen ari gara?

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- MATEMATIKA.

## HELBURUAK

- Produktu baten ekoizpen eta merkaturatze-prozesuaren faseak eta horiek azken prezioan duten eragina aztertzea.
- Markako produktuek merkatuan duten arrakastaz eztabaidatzea.

## MATERIALAK

- ◆ Fitxa originala (ikus Iturriak) edo honako fitxa honen fotokopia.

## Jardueraren garapena

**MARKA EZEZAGUNeko** praka bakeroen eta nazioarteko ospea duten praken arteko prezio-aldea bistakoa da; zergatik ote? Horixe da ikasleek hausnartu beharreko gakoa. Horretarako, urrats hauek emango ditugu:

### A. Antolatu ikasleak sei taldetan;

talde bakoitza berak aukeratutako markako zapatilen fabrikazio eta salmenta prozesuaren maila bat izango da. Zapatilaren marrazkiaren gainean idatziko dute egokitu zaaien maila:

- Lehengaiak, amortizazioak eta garraio zein biltegi-gastuak.
- Eskulanaren trukeko soldata.
- Produktuaren banaketa.
- Administrazio-gastuak.
- Publizitatea eta babesak.
- Enpresako akziodunen mozkinak.
- Beste batzuk (atal honetan,

Finantza-gastuak %0,45

Proiektua %3,88

Zergak %1,77

Atzerrikoei ordaindu beharreko tasak %0,95

zehazten zailak diren beste alderdi batzuk jasotzen dira).

**B.** Talde bakoitzak honako problema hau ebatzi beharko du:

*Zapatilek 60 euro balio badute, eta zehazten zailak diren kontzeptuetarako %7,73 erabiltzen bada, zenbateko ehunekoa eta zenbat diru dagozkio talde bakoitzari?*

Datu hori aurkitu ondoren, batu sei emaitzak, azken prezioa 60 eurokoa den jakiteko. Atal horretan, talde bakoitzak proposatu duen ehunekoa-ri buruz eztabaidatu du, doia den ala ez ondorioztatzeko. Banaketa egokia ez bada, orekatu arte errepikatu beharko dute.

**C.** Azkenik, sei kontzeptuen benetako banaketaren berri izango dute. Kontrastatu proposatu dutenarekin eta esan bidezkoa den ala ez.


## BENETAKO DATUAK

1. Lehengaiak, amortizazioak eta garraio-zein biltegi-gastuak: %9,50 ■ 2. Soldata: %0,18 ■ 3. Banaketa: %39,62 ■ 4. Administrazio-gastuak: %10,82 ■ 5. Publizitatea eta babesak: %9,50 ■ 6. Akziodunen dibidenduak: %2,80

### Iturria:

HAIBAT EGILE. **Ingurugiro Hezkuntzarako Materialak** // **Materiales de Educación Ambiental: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza** // **Educación Secundaria Obligatoria: Ekonomi-jarduerak eta ingurugiroa** // **Actividades económicas y medio ambiente**. CEIDA-Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa // Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 1996.





# Hanburgesen mundua

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- HIZKUNTZA.



**Iturria:**  
Proyecto **Jugando a entender el mundo**.  
Europar Komunitateen Batzordea. Adena/WWF.  
Madrid, 1992.

## HELBURUAK

- Ikasleak kontsumoarekin lotutako alderdiak aztertzeke motibatzea, eta gai horren gainean dauzkaten iritzia adieraztea.
- Kontsumoaren konplexutasuna ulertzea eta ondorioak ateratzen eta kontzeptu-maparen bidez erlazionatzen jakitea.

## MATERIALAK

- ◆ *Hanburgesen mundua* komikia, *Jugando a entender el mundo* proiektutik ateratakoa.

## Jardueraren garapena

Helburuak aipatzean adierazi dugun bezala, jarduera hau ikasleek gure kontsumo-ohituren ondorioei buruz hausnartzean, batez ere hanburgesen kontsumo masiboari dagokionez, eta kontzeptu-mapan kausa/ondorio erlazioak eratzean datza.

1. Honakoa galdetuko diegu: zuen ustez, zer ondorio ekar ditzake hanburgesen kontsumoak? Ikasleen erantzun guztiak arbelean idatziko ditugu ordena zehatzik gabe, ideia-andana gisa.
2. Ikasleak hiruzpalau taldetan antolatuko dira, eta talde bakoitzari **Hanburgesen mundua** izenburuko komikia emango diogu irakurtzeko.
3. Taldekideen artean, irakurri dutenetik atera dituzten ondorioak aipatu eta ideiak orri banatan idatziko dituzte.
4. Kontzeptu-mapa. Ideien eskema prestatzean datza (arbelean egin daiteke): ideia orokorrenetatik —goian— zehatzenetara joango gara. Ideien arteko loturak lerroen bidez adierazi behar dira, eta lerro horien gainean, ideia batzuen eta besteen arteko zubiarena egiten duten hitzak idatzi ahal dira. Amaieran, proposatutako ideia guztiek elkarrekin lotuta egon behar dute; azken emaitza kontzeptuen mapa da.
5. Ariketa burutzeko, hasieran aipatutako ideiak amaieran lortutako maparekin erkatu egin daitezke.





## SAKONTZEN



## ekin eta ekin

## BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA

*Ingurumenak bete-betean hartzen du etxeetan egunero hainbat konturen gainean hartzen diren erabakien eragina: zer produktu erosi eta nola erabili, zer leku nahiago den lan egiteko eta bizitzeko, zer etxebizitza mota, hondakinak deuseztatzeko zer metodo erabili, oporraldia non igaro...*



# Kontsumitzaile ala kontsumista?

## HELBURUAK

- Gure kontsumoak ingurumenari jasanarazten dion inpaktua ezagutzea.
- Azterna ekologiko kontzeptua ulertzea.

**GUTAKO BAKOITZAK** ingurumenari presio murrizta jasanarazten diogun arren (industriek eragiten dituzten inpaktuen aldean), pertsona askoren erabakien ondorio konbinatuak ingurumen-arazo ugaritan eragina duen faktore garrantzitsua dira; arazo horietakoak dira, besteak beste, airearen eta uraren kutsadura, hondakinaren sorrera, habitataren asaldura eta aldaketa klimatikoa.

Etxeetako energia-erabilpena, bidaiak, hondakinaren sorrera eta kontsumitako eta deuseztatutako produktuen bolumenaren hazkunde absolutua gorantz doaz etengabe herri garatuetan; baina, noiz arte jasan dezake hori planetak? *Aztarna ekologiko* esakuneak hauxe neurtzen du: pertsona bakoitzak, bere kontsumo-mailari eta sortzen dituen hondakinaren

mailari eusteko, zenbat hektarea lur (bertako batez besteko baliabideak ere barne hartuta) okupatzen duen.

Munduan gauden 6.000 milioi gizakion *azterna ekologiko* dauden baliabide guztiak baino %30 handiagoa da. Agidanez, neurritz kanpo erabiltzen ari gara gure planetako baliabideak, ingurumenaren eskaintza

abiada bizian ahitzen dugularik.

Gutako bakoitzaren inpaktua nolakoa den ikusteko test moduko bat proposatzen dizuegu ondoren. Atal bakoitzak bi erantzun-aukera ditu, **A** edo **B**. Seinalatu zure oraingo bizimoduari gehien hurbiltzen zaiona. Amaitzean, batu zeure erantzunei dagozkien puntuak.







- ☐ a. Autoz joaten zara ia beti.  
☐ b. Garraio publikoan, bizikletaz edo oinez joaten zara ia beti.




- ☐ a. Urtero, bidaia luze bat egin ohi duzu, zure probintziaren mugakide ez diren beste batzuk bisitatzeko.  
☐ b. Oro har, zure Autonomia Erkidegoaren barruko bidaia laburrak egiten dituzu.



- ☐ a. Oso hondakin gutxi birziklatzen dituzu, edo bat ere ez.  
☐ b. Zaborra ahalik eta gehien murrizten duzu (adibidez, bildukin gehiegi dakartzaten produktuak arbuiauz), eta ahal duzun guztia birziklatzen duzu.



- ☐ a. Etxea epel daukazu beti, isolatzeko sistema gutxi erabiltzen dituzu eta, horregatik, diru asko gastatzen duzu berokuntzan.  
☐ b. Berogailua neurritz erabiltzen duzu, isolatzeko sistema egokia daukazu eta, beraz, diru gutxi gastatzen duzu berokuntzan.




- ☐ a. Diru asko gastatzen duzu elektrizitatean, eta aparatuak eta argiak piztuta uzten dituzu, erabili ez arren.  
☐ b. Beti deskonektatzen edo itzaltzen dituzu aparatu eta argiak, eta diru gutxi gastatzen duzu elektrizitatean.



- ☐ a. Ez duzu pila kargagarriak erabiltzen, eta pila asko gastatzen dituzu etxetresna txikietan.  
☐ b. Pila kargagarriak erabiltzen dituzu.



- ☐ a. Egunkariak eta liburuak maiz erosten dituzu.  
☐ b. Egunkariak partekatu egiten dituzu, eta, orokorrean, liburuak erosi beharrean, liburutegietara joaten zara maileguan hartzera.





- ☐ a. Prestatuta dauden eta bildukin asko dituzten janariak erosten eta kontsumitzen dituzu.  
☐ b. Batez ere, janari freskoak eta tokiko produktuak erosi eta kontsumitzeko ahalegina egiten duzu.



- ☐ a. Markako jantzi eta oinetakoak erosten dituzu, ikastetxean begi onez ikus zaitzaten.  
☐ b. Behar ahala erosten dituzu jantzi eta oinetakoak, markari begiratu gabe.



- ☐ a. Sarritan bainatzen zara.  
☐ b. Normalean, dutxatu egiten zara.



Batutako puntuak ingurumenari jasanarazten diozun inpaktuaren eta zure kontsumoaren neurria adierazten dute: zenbat eta puntu gehiago batu, orduan eta handiagoa da zure inpaktua. **A** erantzunek 10na puntu balio dute, eta **B** erantzunek 2na puntu.

**20-30 puntu.** Zorionak! Arduratsua zara, eta zure ingurumen-aztarna txikia da.

**30-80 puntu.** Guztiok zuk beste kontsumituko bagenu, daukaguna eta beste planeta bat beharko genituzke.

**80-100 puntu.** Zure aztarna ekologikoa oso handia da. Pertsona guztiak zu bezala biziz gero, hiru planeta beharko genituzke.

#### Gehiago jakiteko:

Aztarna ekologikoari buruzko informazio gehiago aurkitzeko, begiratu web gune honetan: <http://centros5.pntic.mec.es/ies.numero.3.de.parla>



## Pantailaren biktimak

*Azpiko jantzien fabrikatzaileek, salmentetan izandako jaitsiera handiak asaldatuta, hauxe eskatu zioten Sucedió una noche filmaren ekoizleari: Claudette Colberten aurrean biluztean, Clark Gable ausartak barruko kamisetarik ez zeramala erakusten zuen eszena zentsuratzea.*

**SHIRLEY TEMPLE** aktore gaztearen arrakastaren ostean, haren karreraren hasieran, umeentzako apainketa-institutuak loratzen hasi ziren eta, aldi berean, esne eta olo-maluten fabrikek bete-betea ziharduten. Tom Cruisek protagonistaren papera egiten zueneko *Top Gun* filmaren arrakasta ikusita, Estatu Batuetako itsas armadak errekrutatzeke bulegoak ipini



zituena zineen sarreretan; handik gutxira, soldaduen kopurua igo egin zela egiaztatu zuten pozik mili-

tarrek. Gezurra badirudi ere, egia da. Pantailan erakusten denak kontsumo-gizartean daukan ondo-

rioen adibideetako batzuk dira horiek.

Baina aipatutakoak dibertigarrienetakoak dira, beste batzuk, aitzitik, ez direlako hain jostagarri, esaterako, ikasle estatubatuar gazteak ikaskidea hil izana, *Nike* zapatilak lapurtzeko; edo *Superman* heroiaaren fan askok beren buruaz beste egin izana, gizakiok hegan egin dezakegula sinetsita. Publizitatearen arloa taldeka aztertzea proposatzen dizuegu, nolabait berarekiko jarrera kritiko eta eraginkorragoa hartzeko: zehatz-mehatz jakin behar dugu zer saldu nahi diguten eta zer bitarteko erabiltzen dituzten horretarako.

### Publizitate-iragarkiak auzitan

Oro har, ohikoena iragarriez paso egitea bada ere, oraingoan ahalegina egin beharko duzue —taldeka nahiz banaka—, deigarri iruditzen zaizkizuen iragarkiak argitu edo xehatzeko. Zentzugabeak direlako aukeratu ahal dituzue, edo sexistak direlako, esate baterako.

#### Publizitate-iragarkien tailerra

Hasteko, iragarki bat edo bi grabatuko dituzue bideo-zinta batean. Gainerako ikaskideei erakutsi, eta jolastu egingo zarete iragarkiarekin: telebistaren pantaila estalita eta iragarkiko ahotsak guztiok entzuteko moduan daudela, zer iragartzen den galdetuko diezue; gero, irudiak bolumenik gabe ikusi, eta galdera bera egingo diezue (batzuetan begi-bistakoa izango da, baina ez beti).

Ondoren, iragarki osoa ikusi eta entzundakoan, zenbait konturen gainean

eztabaidatuko duzue: iragarkia egiteko zer argumentu erabili diren; era-

kargarriagoa izan dadin, zerez baliatu diren (musikaz, koloreez, hotsez...), nolako publikoari zuzentzen zaion...

**www.adbusters.com**

Enjoy  
*Climate Change.*

Coca-Cola's use of HFCs to cool its drinks contributes to climate change. Ban HFCs.  
[www.cokespotlight.org](http://www.cokespotlight.org)

Bereziki gomendatzen dizuegu **adbusters** (iragarki-harrapatzaileak) talde kanadarraren web hori, transnazionalak eta berorien eskandaluzko jokabideei buruzko datuak ematen ditu-eta; adibidez, nola Nestlé etxeak duela gutxi zor izugarri bat ordaintzea exijitu dion Etiopiako gobernuari. Irudian, adbusters taldeak Greenpeacearen kanpainarako egindako posterra. Kanpaina horren xedea Coca-Colak euren salmenta-tokietan CFKrik gabeko hozkailuak erabil zitzaizkien lortzea zen. Interneten bidez zabaldutako iragarki dibertigarrien arrakasta ikusita, Coca-Colak kutsadura urritzeko helburuarekin bat egin, eta bere hozkailu eta salmenta-makina guztiak aldatzea erabaki du. Horrek argi uzten du Dabidek, batzuetan, Goliath garaitzerik ez badu ere, konbentzitu egin dezakeela.

Iragarkiari *tripak* atera eta bere oinarriak desmuntatu ondoren, *kontrairagarkia* egingo duzue, lehengo iragarki hura berreginez. Horretarako, hementxe daukazue iradokizun batzuk: beste testu bat idatzi eta antzetzu ahal duzue (gero iragarkia zuen ahotsekin ikusiko duzue), iragarki originalaren musika beste batez ordeztu, edo rolak aldatu (emakumeari gizonaren ahotsa jarri eta alderantziz), adibidez. Emaizta guztiz ezberdina izango da. Oso ondo pasatzeaz gain, erraz konturatuko zarete iragarkia erabat aldatzen dela osagai batzuk —itxuraz txikiak— aldatuz gero.

# La identidad ética y política de la educación ambiental



José Antonio  
Caride Gómez

Catedrático de Pedagogía Social.  
Universidad de Santiago de Compostela.

**EN LA DEGRADACIÓN AMBIENTAL** se resumen muchas de las crisis de nuestro tiempo. No sólo las que tienen su origen en las graves perturbaciones de los ecosistemas naturales y de sus múltiples formas de sostener la vida. También las que nos afectan como sociedad y civilización, ante la reiterada incapacidad del género humano a la hora de afrontar las frágiles circunstancias en las que se inscribe la existencia de amplios colectivos sociales, maltratados por situaciones de injusticia, desigualdad, violencia, explotación o pobreza. Unas y otras, expresión de realidades con las que convivimos cotidianamente, a las que —con mayor o menor énfasis— se ha tratado de dar respuesta imaginando nuevos cauces para la consecución de un desarrollo más integral y sustentable.

Desde los primeros años setenta, la Educación Ambiental ha tenido la virtud —o el atrevimiento— de sentirse partícipe de esta búsqueda, otorgando una especial relevancia a la educación y a los educadores en la aproximación de los ciudadanos a un saber y quehacer ambiental al que *otras* educaciones venían mostrando una persistente indiferencia.

En este sentido, y a pesar de las ambigüedades que anidan en muchas de sus propuestas, las aportaciones que la Educación Ambiental viene realizando a la comprensión y mejora del medio ambiente han posibilitado que seamos cada vez más conscientes de la necesidad de disponer de un entorno ecológicamente habitable, incidiendo en la responsabilidad de las personas y de los pueblos en el logro de una administración mucho más prudente de los limitados recursos del Planeta.

Además de incrementar la sensibilidad sobre los problemas ambientales —de modo particular, los que toman como referencia la Naturaleza— y sus consecuencias para la supervivencia, la Educación Ambiental ha contribuido a propiciar un cambio en las miradas que dirigimos al mundo. Y, de paso, a revisar ciertos comportamientos y actitudes relacionados con su conservación, a ampliar las lecturas sobre el medio ambiente y la complejidad que lo caracteriza, a divulgar conocimientos sobre los *hechos ambientales* y la incidencia que en ellos tiene la acción humana, a acrecentar las infraestructuras disponibles para percibirlos e interpretarlos... Más que esto, también ha favorecido nuevas visiones sobre la educación y los modos de educar —dentro y fuera de los sistemas educativos—,

innovando los contenidos y las metodologías, diversificando las prácticas pedagógicas, multiplicando los agentes, restableciendo valores, sugiriendo opciones estratégicas para el logro de una formación más plena y transversal a la vida en toda su diversidad.

Sin embargo, en el marco de una sociedad que se globaliza retrocediendo en la distribución equitativa de los *bienes* que se ponen a disposición de los ciudadanos; indiferente y hasta condescendiente con los abusos del poder político, financiero y mediático; insegura en sus convicciones y en las prácticas democráticas que sustentan la convivencia; dubitativa en la generalización de los derechos a la igualdad, la libertad o la fraternidad... son logros insuficientes, aunque estimables. No sólo porque en muchos de ellos se hace visible la distancia existente entre lo que se declara —como principios, objetivos, finalidades, estrategias, programas, etc.— y lo que se hace en nombre de la Educación Ambiental, sino por la desesperanza o el desasosiego que late en el empeño de quienes esperábamos más de sus tentativas, en menos tiempo.

Bien es cierto, se ha hecho de esta educación *ambiental* un eje más de los muchos que se han ido trazando en las últimas décadas (en torno a la interculturalidad, la paz, la solidaridad, la salud, el consumo, la moral, etc.), para poner en práctica una educación que sea coherente con la construcción de una sociedad más justa y cohesionada. O, si se prefiere, de una Tierra en la que seamos capaces de armonizar el derecho al *desarrollo de todos* con todos los derechos que debe procurar el desarrollo, entre ellos los que tienen como soporte la biodiversidad y el medio que la acoge.

Es imprescindible que la Educación Ambiental afirme sus señas de identidad, y, con ellas, su protagonismo en los escenarios de la política y de la ética. De un lado, porque la naturaleza ética y política de la Educación Ambiental es innegable cuando tratamos de vincularla a procesos que deparen sociedades *sostenibles y desarrolladas*; de otro, porque es impensable activar los valores que proclama, a favor de la transformación social y de la *responsabilidad global*, sin hacer explícitos los perfiles alternativos que subyacen a su caracterización como un movimiento histórico-social que pretende trascender las *buenas prácticas ambientales y/o pedagógicas*, por muy importantes que ambas sean.





## SARETIK BUELTAKA



Kontsumo kritiko eta arduratsua [www.pangea.org/spie/selba/EconomiaConsumo.htm](http://www.pangea.org/spie/selba/EconomiaConsumo.htm) Pentsatu duzue inoiz nondik datozen kontsumitzen ditugun produktuak, edo zer baldintzatzen egiten duten lan produktuok ekoitzen dituzten langileek? Merkatuko produktuak aukeratzean alderdi horiek eta beste batzuk aintzat hartzea kontsumo kritiko eta arduratsuzko ekintza litzateke.



Aurrezteko eta ingurumena zaintzeko aholkuak [www.enbuenasmanos.com](http://www.enbuenasmanos.com) En buenas manos atariak kontsumo arrazionalen oinarritutako hainbat aholku ematen ditu, etxean aurrezteaz gain, ingurumena hobetzen lagunduko digutenak. *Ekologia* atalean, garapen jasagarria, nekazaritza ekologikoa, kutsadura eta beste gai interesgarri ugari buruzko sailetarako sarbidea aurkituko duzue.



Gure aztarna ekologikoa [www.vidasostenible.com](http://www.vidasostenible.com) Geure buruari eguneroko kontsumoarekin eta horrek ingurumenari dakartzion ondorioekin lotutako galdera batzuk egin beharko genizkioke.

## Bidezko merkataritza

ZIURRASKI, zuetako askok izan duzue noizbait Bidezko Merkataritzaren berri. Bidezko berbak abstraktua badirudi ere, elkarre eta GKE asko dabilta Hirugarren Munduko herrietako ekoizleek euren lanarekin bat datorren soldata jaso dezaten lortzeko borrokan. Beste helburu batzuk ere lortu nahi dituzte, hala nola ekoizleontzako bizimodu duina, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, ingurumenarekiko begirunea eta abar. Herri txiroetan ekoiztutakoak inportatzen dituzten multinazional handiek, herri ekoizleen pentzudan, mozkinak bidegabeki gizentzeari utz diezaioten lortzeko borroka ez da batere samurra; batez ere, kontsumitzaileok, zeharka, esplotazio horretan parte hartzen segitzen dugula kontuan hartuta. Ertamerikako edo Afrikako herri asko euren kafe-ekoizpenaren menpe bizi dira; hala ere, hauxe



Ekoizleek bitartekoek baino mozkin handiagoak ateratzea beharrezkoa da.

da mozkinen banaketa: %93, kafe-enpresa eta bitartekarietzat, eta %7, kafe-landareak hazten dituzten nekazarietzat. Zeuk ere lagundu ahal duzu egoera hori aldarazten. Adibidez, Intermonek —behean aipatuko ditugun beste elkarteak beste— parte hartzeko aukera ematen duten hainbat kanpainetan dihardu: *Comercio con Justicia* erakusketa ibiltaria martxoan eta apirilean zehar igaroko da gure

Erkidegoko hirietatik. Eskatu Intermonek kanpainaren horren datei buruzko informazioa, eta parte hartzeko aukera ematen duten beste kanpaina edo jardueren berri ere.

### Puntu berdea

**ARKAITZ ESTIBALLES** Galdakaon jaio zen 1977an eta bertako Ikastolan hasi zen bertsotan. Bertso idatzietan eta bat-bateko jardunean hainbat sari irabazi ditu. Egun, herririk herri kantatzeaz gain bertsotoki irakasle dabil hainbat tokitan.

Neurria: Hamarreko txikia. Doinua: Lagundurikan denoi

Zapatillak "Adidas", jertsea "Astora", "Nike" en niki urdina, "Reebok" en bi more, prakak sei pare "Levis", lau "Liberto" ere, erosi eta ezin armairuan gorde, zentzunez erostea ez ote da hobe?

Telebistak edozer saldu arren errez ez dezala pentsatu berak gure orde, munduko lehengaiak urriak direnez kontsumitu aurretik jokatu zentzunez: pentsatu zer erosi ta zer erosi ez!

### ADSIS Equimercado

Fundazio honek Latinoamerikan Bidezko Merkataritzaren alde lan egiten duten hainbat GKE hartzen ditu barne. Boluntarioen proiektuetan parte hartzeko, 16 urtekin gora izan behar duzu.



**Araban**  
Pintore kalea, 27, etxabea. Gasteiz.  
☎ 945 286358.  
vitoria@fundacion.adsis.org

**Bizkaian**  
Ibañez de Bilbao, 15, solairuarte. Bilbao.  
☎ 944 240 881  
bilbao@fundacion.adsis.org  
**Gipuzkoan**  
San Pedro hiribidea, 13, etxabea. Donostia.  
☎ 943 400 021  
www.adsis.org  
kontadores@fundacion.adsis.org

**Emaus/Erein**  
Elkarte honek ere denbora luzea darama Bidezko Merkataritzaren aldeko lanean. Informazio-kanpainak eskaintzen dituzte ikastetxe eta unibertsitateetan, eta boluntarioentzako

prestakuntza-ikastaroak ere antolatzen dituzte. **Bizkaian**  
Mazustegi, 21-25, Bilbao.  
☎ 944 790 737  
bibao@emaus.com  
**Gipuzkoan**  
Ubako bidea, 37. Donostia.  
☎ 943 454 573  
www.emaus.com  
fundacion@emaus.com

**Intermon-Oxfam**  
Urkixo zumarkalea, 11. Bilbo.  
☎ 902 330 331  
www.intermon.org.

**Mercadeco**  
Irabazi asmorik gabeko elkarte honek Bidezko Merkataritzaren

aldeko kanpaina eta proiektuetan laguntzeko boluntariotza sustatzen du. **Araban**  
Nieves Cano, 55. Gasteiz.  
☎ 945 232 470



**Bizkaian**  
San Felisimo plaza, 1. Bilbao.  
☎ 944 763 055  
www.arrakis/mercadeco@arrakis.es  
**Gipuzkoan**  
Geltoki kalea, 24. Irun.  
☎ 943 616 540

**Komikiak****Mafalda, denboraz kanpora**

Mafalda. Tiras de Quino. Ed. Lumen.

Mafaldaren komikiak hainbat belaunaldiren baluarte ideologikotzat har daitezke. Nork ez du ezagutzen edo-zeren gaineko galderak egiten dituen beltzaran txikia? Baina ez du erantzunik aurkitzen, ez bere familian, ez bere lagunaren artean, ez eskolan; hala ere, ez da fidatzen, eta heldu asko baino askoz kritikoagoa da inguruan duen guztiarekiko. Mafalda kontsumismoaren aurka, gerraren aurka, inperialismoaren aurka dago... Baina ezin Mafaldaren aurka egon. Bere kultura-erreferentziak eta zuenak ezberdinak izan arren, burutxo pentsalari hori eta Quinoren istorioetako gainerako pertsonaia (Susanita, Manolito...) denboraz kanpokoak dira. Euren inozotasun adimentsuan oinarrituta salatzen dute munduko desordena, eta egunotan pil-pilean

dauden hainbat eta hainbat arazo larri kontuan hartuta, ez da gutxi salatu beharrekoa.

**Irratsaioa****Beste lurralde batzuetako ekipajeak****Viento Sur**

(Radio 3. Larunbatero, 10:00etatik 11:00etara).

*Inmigrazioari buruzko Legea, Atxilotetako Tarifa, Zortzi pertsona hilda patera batean Lanzaroten...* Behin baino gehiagotan entzun dituzue horrelako tituluak, ezta? Hala ere,

immigrazioak telebistan edo egunkarietan erakusten zaizkigunez beste aurpegi asko ere baditu: Estatura era askotako arrazoiek bul-tzatuta etortzen diren pertsonena, hain zuzen ere. Radio 3ek larunbat goizetan emititzen duen programa horretan, euren bizitza beste norabide baterantz zuzendu nahi duten gehienez ikaragarri bihurtzen ari den errealitatearen beste ikuspegi batzuk eza-gutzeko aukera izango duzue. Pertsona horien musiken, ohituren eta abarren berri izango duzue, eta nola edo hala lagundu nahi duenak elkertasun-bide, boluntario-sare eta antzeko elkarteekin harremanetan jartzeko modua ere aurkituko du bertan.

**bideoklubean****Txartelaren kontura****Rosalie va de compras**

Gaur egun, dirua ere birtual bihurtu zaigula dirudi. Kontuan sosik ez badaukagu ere, berdin dio, dena eros daiteke. Txartelen aroan bizi gara: visa electron, Corte Inglésen txartela, urrezko bezeroen txartela... Erraza, garbia eta arina; nahikoa da kutxazainera sartu, eta zenbaki gorriak loditzen ikustea. Gauza bera gertatzen zaio Percy Adlon zuzendari alemaniarren film honen protagonistari, Rosalieri. Arkansaseko herri txiki batean garatzen da, eta Estatu Batuetako kontsumismo-grinaren kontrako satira modukoa da. Marianne Sägbrecht eta Brad Davis dira giza kontsumismoaren zentzugabekeria erakutsiz jostaraziko zaituen pelikula honetako aktore nagusiak.

**Irakurgaiak****Batere ume ez direnentzako ipuinak****Cuentos****Gabriel García Márquez**

Carme Solé Vendrellen irudiekin.

Susaeta. Madril, 2001.

KOLOREZKO IRUDIZ apaindutako sei kontaketak osatzen duten antologia hau erabateko festa da zentzumenentzat. Idazle kolonbiarraren idazkera bereziari esker, hainbat sentsazio bizi ahalko

dituzu: eguerdiko beroa herrixka bakarti batean, zirimiria zinkeko tei-latuan ateratzen duen hotsa, lore-sorta baten lurrina... (bereziki gomen-dutzen dizuegu *La siesta del martes* izenburuko kontaketa). Oraindik asmatu gabe dago Literaturako Nobel Saria jaso zuen idazle honen literatura maila ordeztu ahal duen bideo-jokoa edo telesaioa. Merezi du umeak protagonistatzat dituzten istorio horietan sartu eta bertan luzaroan geratzea.





# Denon eskola reutilizará los libros de texto

*Denon Eskola es la Federación de Escuela Pública de Álava. Nace de la fusión de Herri Eskola, Federación de Primaria Fapaes, Federación de Secundaria y de la incorporación de las ikastolas, y agrupa prácticamente a la totalidad de las AMPAS de Álava.*

**Es una organización** sin ánimo de lucro que persigue fundamentalmente la defensa del derecho de los padres y madres del alumnado de la escuela pública a participar de pleno en el funcionamiento de los centros educativos. Enraizada culturalmente en Euskal Herria, defiende una enseñanza humanística y científica, de calidad técnica, que desarrolle un espíritu crítico libre, compensando las desigualdades e integrando la diversidad.

## ¿Cómo surge la idea de la campaña de reciclaje de libros de texto?

En Denon Eskola desde hace tiempo venimos planteándonos la gratuidad de los libros de texto en la enseñanza obligatoria. Entendemos que si no pagamos los pupitres como material imprescindible, los libros tampoco, y que desde las administraciones públicas se debe dotar de este recurso a los centros. Por otra parte, creemos que es necesaria y educativa la reutilización de los libros, que no acaben en las estanterías o en los contenedores de papel todos los años, con el coste económico y ecológico que esto supone. Se lo planteamos al Departamento Municipal de Educación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz; éste acogió de muy buen grado la idea, y dio forma a la campaña *Liburtxo*.

## ¿En qué consiste esta campaña?

Consta de varias fases, que van desde junio 2002 a junio de 2003. La primera fase, en la que nos encontramos, es la presentación de la campaña a los medios de comunicación, a toda la sociedad en general, y a los centros

educativos y familias en particular. Continuaremos con reuniones con todas las familias, planteándoles el proyecto. En principio Denon Eskola planteó el proyecto a las AMPAS, y éstas a la vez adquirieron el compromiso de informar a todos los padres y madres de sus centros. El objetivo era crear un sistema de recogida de libros de texto, en los centros que se adhieran a la campaña, con la función de ser reutilizados por otros alumnos/as y evitar comprar innecesariamente todos. Asimismo, vamos a impulsar la firma del documento de adhesión a la campaña por parte de las familias interesadas. Haremos entrega del elemento identificativo de la campaña. Para ello se diseñó una pequeña mascota, en forma de libro, denominada

la *Liburtxo*, que consiste en un imán, para que se tenga en casa a la vista, y nos recuerde a lo largo del curso la necesidad de cuidar los libros, que serán reutilizados por otros/as compañeros/as, poniendo especial atención a la hora de forrar los libros, evitando poner reseñas, pintarlos innecesariamente etc. Durante el curso se trabajará para mantener a todos con la mente abierta a cuidar los libros y convencer a todos los miembros de la comunidad educativa, de la necesidad de hacerlo, cuantos más mejor.

## ¿Qué objetivos esperan cumplir?

Concienciarnos de la necesidad de reciclar los libros de texto, evitando el coste económico y ecológico que ello supone. Asimismo, queremos mentalizar de la necesidad de la utilización racional de los recursos naturales (tala de árboles, en el caso de los libros); pasar de la propiedad particular a la comunitaria, del consumismo a la racionalización; que las editoriales al servicio de la escuela y no al revés. Planteándoles nuestros objetivos, que editen libros reutilizables.

## ¿Qué debería hacer una asociación que decidiera implicarse o llevar a cabo una experiencia similar?

En primer lugar ponerse en contacto con su AMPA o con la dirección del centro. Este es un proyecto en el que es necesario que nos impliquemos todos. Sin el apoyo del profesorado, cuesta más llevarlo a cabo. También es

una excusa para hablar de diferentes temas relacionados con el medio ambiente.

## ¿Qué otros objetivos desarrolla la Federación con respecto al medio ambiente?

A través de las AMPAS y el Consejo Escolar, potenciamos que se establezca la comisión de Salud y Medio Ambiente dentro del centro. Como área transversal, se trabaja la educación medio ambiental, pero no como una exposición teórica de ideas o datos, sino que ha de tener una vertiente práctica que contribuya a un cambio de mentalidad y a modificar actitudes y hábitos.





# Kontsumo eskola

*Kontsumitzen ere ikasi egiten da*

KONTSUMO ESKOLA kontsumo gaietan espezializaturiko heziketa zentroa da. Gasteizen dago eta Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzaren menpe dihardu. Bere instalazioetan, mediateka, infoteka, elkarte eta ikastetxeentzat antolatzen diren tailerrak garatzeko bilera-areto eta langelak, eta mintegi espezializatuak aurkituko ditugu, nahi duen ororen eskueran. Bertan eskaintzen zaigun material didaktikoan, besteak beste, publizitatea, etiketak, erosketak, elikadura, kontsumitzailearen eskubideak eta, ingurumenaren arloan, hondakinen gaikako bilketa, birziklapena eta berrerabilpena lantzen dira. Dokumentazio-zentro honen material guztiak maileguan uzten dira.

## Kontsumoari buruzko Tailer ibiltariak

Kontsumoari buruzko Tailer ibiltariak Kontsumo Zuzendaritzaren eskaintzetakoa da, IHITZA behin baino gehiagotan iragarri izan dena (oso interesgarria ikastetxeentzat). Lehen Hezkuntzarako, hamalau tailer daude aukeran, eta Bigarren Hezkuntzarako, hamabost. Ikastetxe bakoitzak gutxienez bi tailerretan eta gehienez bostetan har dezake parte, baina aukeratutako tailerrak ikasmila bat

baino gehiagotan garatu daitezke. Jardueraren atalik garrantzitsuenetako bat kontsumo hezkuntzaren gainean etapa bakoitzerako berariaz taxututako material didaktikoa irakasleei aurkeztean datza, eta beste bat gurasoei zuzendutako informazio-hitzaldia da, aukeran dauden zazpi gaitako bati buruzkoa. Tailerretan parte hartzeko, honako eskakizun hauek bete behar dira: irakasleak tailerretan egotea, beharrezko azpiegitura (bideoa, erretroproiektorea...) duten hiru gela izatea, eta Eskola Kontseiluak edo gurasoen batzordeak gurasoentzako hitzaldirako deialdia egiteko konpromisoa hartzea. Tailerrek ordu eta erdia irauten dute.



Tailer praktikoa erabat hornituta dagoen sukalde-gela batean egiten dira.



Kontsumo Eskola gela informatizatu batez hornituta dago.

## Kontsumo eskola

Adriano VI.aren kalea, 20, 1.

GASTEIZ

© 945 016 600

Ordutegia: 9:00etatik 13:30era  
eta 15:30etik 19:00etara

## Tailer ibiltariak

Eskariak:

[www.euskadi.net/consumo](http://www.euskadi.net/consumo)

web gunearen bitartez, telefonoz (945 019 926) edo faxez (945 019 947) egin daitezke, bai eta Kontsumo Zuzendaritzan bertan ere: Donostia kalea, 1. Gasteiz.

## Ondorengo gaiak eskaintzen dira:

### Lehen Hezkuntza

- Elikagaien ekoizpena.
- Elikagaien arteko konparazio-analisiak.
- Supermerkatua eta erosketak.
- Elikagaien etiketak.
- Papera birziklatzea.
- Ontziak eta euren berrerabilpena.
- Lehengaien eraldaketa.
- Publizitatearen analisisak.
- Ura eta argindarra.
- Ehungintza tailerra.
- Umeen segurtasuna.
- Jolasa eta jostailuak.
- Garraio publikoa.
- Kontsumitzaileen eskubideak.

### Bigarren Hezkuntza (lehen zikloa)

- Janaria eta elikapena.
- Estetika eta elikadura: gorputzaren gurtza.
- Elikagaien arteko konparazio-analisiak.
- Etiketak.
- Kontsumo eta ingurumena.
- Lehengaien eraldaketa.
- Publizitatea eta kontsumoa.
- Uraren eta elektrizitatearen ordainagiriak.
- Energia aurrezteko neurriak.
- Plastikozko dirua.
- Sakeleko telefonoak eta Internet.
- Aisialdirako era berriak.
- Merchandising.
- Etxeko ekonomia eta aurrekontua.
- Kontsumitzaileen eskubideak.
- Jokoak eta bideojokoak.



# Euskadiko hazien sarea

IKASTURTE HONETAN, CEIDAK Hazien Sarearekin lotutako jardueretako batean parte hartzea proposatu die eskolako baratzeak garatzeko diru-laguntzak jasotzen dituzten ikastetxeei. Horrela, eskolako baratzean hazi horiek erabili, eta bertoko barietateak ekoitzi ahalko dira. Sareak honako lan hauek garatzen ditu:

- Baserrietako bisitaldiak, haziak dauzkaten pertsoneri eta beroriek biltzen dituzten barietateei buruzko informazioa batzeko.
- Pertsona horiek emandako barietateetako haziak biltzea, xede hauei begira:
  - Neikerri ematea, karakterizazioa egiteko.
  - Barietate horiek erabili nahi dituztenen artean banatzea, betiere pertsona horiek hazi-laginak itzultzeko konpromisoa hartuta (horixe da *ex situ* banku genetikoak).
  - Haziak INIAren *in situ* banku genetikoetara helaraztea (Zaragozara bidali dira, hain zuzen ere).
- Gure barietate tradizionalak eza-gutarazteko eta laborantzian erabil daitezen sustatzeko.
- Barietate tradizionaleri eta beroriek mantentzeko moduari buruzko informazioa duten egutegiak argitaratzea.
- Barietateen purutasuna bermatzen duten haziak gordetzeko eskuliburu itzuli, argitaratu eta zabaltzea.
- Estatuan nahiz Europan nekazaritza ekologikoa, haziak eta antzeko arloak lantzen dituzten beste sare batzuekin koordinatzea.



Euskadiko Hazien Sareak argitaratu duen egutegiko irudia.



Txurdinagako CEIDAN egin zen eskolako baratzeen gaineko jardueran EHNE sindikatuko kide batek Euskadiko Hazien Sarea zer den azaldu zuen.

## Material didaktikoak

### Guía educativa para el consumo crítico

*Materiales para una acción educativa sur-norte. Efectos sociales y ambientales del consumo*

Laura Albareda et al.  
Los libros de la catarata. Madril, 1998.

Oso material erabilgarria da Bigarren Hezkuntzako edozein ziklotarako. Planetako kontsumoari buruzko hainbat gai aztertu ez ezik, eguneroko produktu askoren gaineko gogoeta (kafea, kakaoa, arropa, zura edo zukuak, adibidez) eragin nahi die kontsumitzaileei. Fotokopiak erabil daitezke. Gaiak jorratzeko erabiltzen duen ikuspuntua oso egokia da diziplinarteko tratamendurako. Horrez gain, bibliografia zabala eta helbide interesgarriak ere eskaintzen ditu.



### Nada se tira, nada sobra

*Construcción de juguetes con material de desecho*

Charo Piñango eta Sol Martín Francés.  
Madrilgo Erkidegoko Heziketa eta Kultura Aholkularitza. 1994.  
Popular Arg.

Liburu honetan, Madrilgo Animazio Eskolako antolatutako tailer, ikastaro eta jardueretako esperientziak eta lan praktikoak bildu dira. Hainbat urtetako lanaren emaitza den liburu honen bi ardatzak jostailua eta sormena dira (besteak beste, kontsumoarekin, ingurumenarekin eta hondakinen birziklapenarekin lotutako ikuspuntuetatik begiratuta). Liburuak hainbat atal ditu: sentibera-tzeko gaiak, jostailu tradizionalak, hondakinak erabiliz jostailuak eraikitzea... Fitxetako argibideei esker, zeuek ere egin ahal izango dituzue periskopioak, latorrizko autoak, bola-jaleak, trikimakokak, buruhausgarriak eta abar. Jostailuok egiteko lehengaiak —hondakinak, etxean bertan dauden gauzak...— edonon aurki ditzakezue.



## Bidezko merkataritza

INTERMON. Bidarte distribuciones.

Unitate Didaktiko honetan, Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzerako berriazko atal bat dago. Lehen zikloan, produktuen jatorria (kakaoarena, kasu honetan) aztertzen da, eta protagonista bera, Kevin, agertzen da beti, atalen arteko lokarri: *Kevin, nondik dator kakaoa?* Ondoren, produktua nola elaboratzen den azaltzen da, eta hirugarren zikloan, amaitzeko, produktua merkaturatzeko prozesuaren berri ematen da: *Merkatura Kevinekin*. Euskaraz eta Gaztelaniaz.

Materiala ikastetxera bidaltzea eskatu ahal duzue; hementxe daukazue helbidea eta telefonoa:

Berriainz industrialdea  
B kalea, 44. nabea. 31195  
Berriozar (Nafarroa)  
☎ 948 302 239  
Faxa: 948 302 708  
Posta-e: yoar@bitarte.net

## Consumo sostenible

### Preguntas con respuesta

Pilar Comín eta Bet Font.  
Icaria. Mielenrama bilduma.  
Bartzelona, 1999.  
Ramón Folchen hitzaurrea.

Benetan ekologikoak dira etiketa berdea daukaten produktuak? Osasungarriagoa da barazki biologikoak jatea? Egin ahal zaie aurre inurriei pozoirik erabili gabe? Galdera horiei eta beste hainbati erantzuten zaie liburu dibertigarri honetan. Batzuek oso argi ikusten duten ideia xehe honetan oinarrituta dago: hainbeste kontsumitu gabe, gutxiago kutsatuz eta —bitxia bada ere— hobeto kontsumituz bizi ahal da. Liburuaren idazleek eta hitzaurrearen egileak argi utzi nahi izan dute jarrera pertsonalek gizartearen eraldakuntza kolektiboekin ekin ahal izateko duten garrantzia. Azken finean, nor konbentzituko dugu mundua aldatu beharraz, geure buruari sinestaraztea lortzen ez badugu?



## BIDEOA

### Eurokontsumitzaileak 1. eta 2.

Eurokontsumitzaileak 1. eta 2.  
ITESA. 25na minutuko iraupena.  
Euskaraz eta gaztelaniaz.

Oso egokia Lehen Hezkuntzako Hirugarren ziklorako eta Bigarren Hezkuntzarako. Bideo bakoitzean, kontsumoarekin zerikusia duten sei gai aztertzen dira labur-labur. Ikasleak sentiberatu eta motibatzeko abiapuntutzat erabili daitezke.

## JOKOA

### La casa ecológica Consumo Responsable, en un planeta vivo

Forges. MOPT.

Elkarri mihiztatzen zaizkion 24 pieza dakartzan kutxa da, etxe ekologikoa eraikitzeko aukera kopuru mugagabea ematen duena. Marrazkiak Forgesek eginak dira eta etxea eraikitzeko aukera guztiak irudikatzen dituzte. Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako gomendatua.



## IRAKURGAIK

### Gran guía del consumo responsable

Pharus fundazioa. Dublin, 1995.

Kontsumo-ondasun eta produktu arruntek ingurumenaren zein gizartearen ikuspegietatik dakartzaten ondorioetara hurbiltzeko irakurgai interesgarria. Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzentzen zaie, eta gidaliburu taxua du. Gaiz gai jorratzen ditu kontsumoarekin lotutako alderdiak: nutrizioa eta janariak, garbigarriak, kosmetikoak, arropa, etxea eta energia. Oso planteamendu kritikoa erakusten du zentzugabeko kontsumismoaren kontra, baina merkatuak eskaini ohi digunaz bestelako alternatiba



bigunak —ekologikoak, edo besteak bezain kaltegarri ez direnak— aurkeztu ditu.

### Dirurik gabe bizitzea

### Mi vida sin dinero

Heidemarie Schwermer  
Gedisa Editorial. Bartzelona, 2002

Heidemarie Schwermer irakasle alemaniarren esperientzia eguneroko bizitzarako era alternatiboak aurkitzeko eskaintza paregabekoa da. Liburu autobiografiko honek egilearen bizitza-esperientzia erakargarria kontatzen du; 1996 urtean Schwermer-ek guztiz aldatu zuen bizitza, dirua betirako alboratuz: altzariak oparitu, etxea eta psikoterapia lana utzi eta mediku asguru berta behera laga. Aurretiaz, Europako lehenetariko trukegunea zabaldu zuen. Liburuaren gure balore sistema birpentsatzeko hausnarkeza izateaz gainera, elkarbizitza era alternatiboekin ausardiaz aurre egiteko gonbit liluragarria da.



# Jasangarritasunerako hezi

## Eskolako Agenda 21

# Educar para la sostenibilidad

## Agenda 21 escolar



Eskolarentzat egin berri den agiri praktikoa da: udalerrietan garapen jasangarriaren alde egiten ari diren elkartasunezko ahaleginean eskolari parte hartzen laguntzea du helburu. Garapen jasangarrian hezteko beharrezkoa den hezkuntza-aldaketa gauzatezen ere lagundu nahi du **Eskolako Agenda 21** gidak.

La Escuela ya dispone de un documento práctico para participar en el esfuerzo solidario por alcanzar un desarrollo sostenible de la comunidad local. La **Agenda 21 escolar** pretende ser una guía para el cambio educativo que supone el reto de educar para la sostenibilidad.

**IHITZAren ale guztiak sarean: [www.euskadi.net/ihitza](http://www.euskadi.net/ihitza)** Todos los números de IHITZA en la web

*Gai hauek prestatzen gabiltza:*

11 zk.: Airea.

12 zk.: Partaidetza.

13 zk.: Paisaia.

Zuen ekarpen eta iradokizunen zain gaude.

*Números en preparación:*

Nº 11: El aire.

Nº 12: La participación.

Nº 13: El paisaje.

Esperamos vuestras aportaciones y sugerencias.

## CEIDA ingurumen heziketa zure eskura

### BILBAO

Ondarroa, 2  
48004 Bilbao  
• 944 11 49 99  
• [ceida-bilbao@ej-gv.es](mailto:ceida-bilbao@ej-gv.es)

### URDAIBAI

Udetxea Jauregia  
48300 Gernika-Lumo  
• 946 25 71 25  
• [urdaibai@ej-gv.es](mailto:urdaibai@ej-gv.es)

### DONOSTIA

Basotxiki, 5  
20015 Donostia  
• 943 32 18 59  
• [ceida-donosti@ej-gv.es](mailto:ceida-donosti@ej-gv.es)

### LEGAZPI

Brinkola, z/g  
20220 Legazpi  
• 943 73 16 97  
• [ceida-legazpi@ej-gv.es](mailto:ceida-legazpi@ej-gv.es)

### VITORIA-GASTEIZ

Baiona, 56-58  
01010 Vitoria-Gasteiz  
• 945 17 90 30  
• [ceida-vitoria@ej-gv.es](mailto:ceida-vitoria@ej-gv.es)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU  
ETA INGURUMEN SAILA  
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN  
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN





## III. jardunaldiak

IHITZA

INGURUMEN HEZKUNTZAKO III. JARDUNALDIAK

# Sostenibilidad: educar para vivir

El salón de plenos del Palacio Miramar se llenó durante las exposiciones de las III Jornadas de Educación Ambiental de Euskadi.

YOLANDA LOZANO

**Las III Jornadas de Educación Ambiental de Euskadi, celebradas los pasados 28, 29 y 30 de noviembre en el Palacio Miramar de Donostia, suponen un posicionamiento del mundo de la educación ambiental ante los retos planteados por la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible.**

>> **Javier Usobiaga** // Donostia

**TRAS LA RECEPCIÓN** de participantes y la entrega de la documentación, comenzaron el jueves 28 de noviembre las III Jornadas de Educación Ambiental de Euskadi con la ponencia de Sabin Intxaurreaga, Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, titulada *Euskadi y la Sostenibilidad*.

El Consejero expuso las metas ambientales recogidas en la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible: garantizar un aire, agua y suelos limpios y saludables, realizar una gestión responsable de los recursos naturales y de los residuos, proteger la naturaleza y la biodiversidad, lograr un equilibrio en el desarrollo territorial y la

movilidad y limitar la influencia del cambio climático.

Posteriormente, Daniella Tilbury (de la Universidad Macquarie de Sidney) expuso una visión positiva del marco medioambiental tras la Cumbre de Johannesburgo, en contraposición con el *sabor amargo* que reflejaron en su día diversos medios de comunicación. Tilbury destacó los resultados obtenidos: reafirmación de los acuerdos de Río, plan de erradicación de la pobreza vinculado a la paz y percepción de la globalización como una amenaza a la biodiversidad.

Para concluir la mañana del jueves, Josu Erkiaga, Director de Biodiversidad del Gobierno Vasco, habló sobre el grado de integración de la educación ambiental en el sis-

tema educativo. Un estudio sobre este tema ha revelado que existe un desfase entre lo que el profesorado transmite y lo que el alumnado asimila. Por otro lado, se constata la necesidad de que la Administración apoye a los centros escolares dotándoles de tiempo y otros medios para favorecer la educación ambiental. Sin embargo, recalcó Erkiaga, pese a todo, se ha avanzado mucho y muy positivamente.

Por la tarde se presentaron diversas experiencias, entre ellas las de asociaciones como Biolur o Goimen, que expusieron su trabajo para impulsar la agricultura ecológica y la producción dentro del desarrollo sostenible. La jornada concluyó con una mesa redonda sobre estrategias de educación ambiental, en la cual representantes de Cataluña, Baleares, Galicia y Navarra dieron a conocer las pautas administrativas de sus respectivas Comunidades Autónomas.

Michela Mayer, presidenta de la Red Internacional ENSI de OCDE,



inauguró la jornada del viernes con la ponencia *Retos de la educación ambiental*, en la que subrayó la importancia de la educación ambiental como educación para el cambio.

## Discusión de estrategias en grupos

El resto del viernes estuvo marcado por las actividades de los grupos de trabajo. Estos grupos se formaron tras la ponencia de Mayer para debatir sobre el papel que debe jugar la educación ambiental en la consecución de las cinco metas ambientales establecidas en la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible: medio ambiente saludable, la gestión responsable de los recursos y los residuos, la protección de la naturaleza y la biodiversidad, el equilibrio territorial y movilidad y la limitación del cambio climático.

Las III Jornadas de Educación Ambiental de Euskadi, que mostraron detalles novedosos al ofrecer alimentos ecológicos y actuaciones de payasos (Oihulari Klowen) que caricaturizaban las distintas ponencias en los descansos, finalizaron el sábado 30 de noviembre. La última sesión se inició con una mesa redonda sobre las Agendas 21 escolares, en la que intervinieron Vicent Vicent (CEFIRE, Castellón), Asún Fernández (CEIDA, Euskadi) y Hilda Weissmann (Coordinadora técnica de la Agenda 21 Escolar del Ajuntament de Barcelona). A continuación Konrado Mugertza, Director de Innovación Educativa del Gobierno Vasco, pronunció la conferencia *Calidad educativa y sostenibilidad*, en sustitución de Anjeles Iztueta, Consejera de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Mugertza señaló la necesidad urgente de una reforma educativa y social con el objetivo de conseguir la participación activa de la ciudadanía. Para finalizar, los grupos de trabajo expusieron sus propuestas y conclusiones para una mejora efectiva de la educación ambiental en Euskadi.



Aspecto de la mesa redonda sobre Agendas 21 escolares. De izquierda a derecha: Josu Erkiaga, Hilda Weissmann,

***“Hiritarren partaidetza ingurumen babesari begira bultzatu behar den ezinbesteko betebeharra da.”***

**Sabin Intxaurreaga**  
Lurralde Antolamendu eta  
Ingurumen sailburua



Garapen jasangarria lortzeko, oparotasun ekonomikoa, enpleguaren hazkundea, bizi-kalitatea eta ingurumen osasuntsua bateratzea ahalbidetuko diguten aldaketak egin behar dira. Garapen jasangarriaren euskal ingurumen-estrategiak argi erakusten du Administrazioaren borondatea, baina gizarteko estamentu guztien parte-hartzea eskatzen duen zeregina da. Gainera, aurrera jo ahal izateko, honako bost baldintzak bete egin behar dira, ale-

gia: ingurumen aldagaia beste politika sektorialetan integratzea; indarrean dauden legeak eta euren aplikazioa hobetzea; merkatuak ingurumenaren alde jardun dezan sustatzea; ahalmena eta erantzukizuna herritarrekin konpartitzea, eta ingurumenaren arloko garapen teknologikoa indartzea.

***“Hezkuntzak ezin ditu gizartearen azturak aldatu bere kabuz.”***

**Josu Erkiaga**

Biodibertsitatearen zuzendaria



Ingurumenari dagokionez, jarrera kritikoak bilatu behar ditugu hezkuntzaren baitan. Parte-hartzea beharrezkoa da, baina benetako arazoa parte-hartze hori nola gauzatu ebaztea da. Ingurumen hezkuntza aplikatzerakoan, ez da kontrako jarrerarik ikusten; baina, ekintza zehatzak finkatzeari begira, erregularotasun eskasa sumatzen da. Irakasten denaren eta ikasten denaren arteko desfasea dago, adierazi zuen Josu Erkiagak ikasleek ingurumenarekin

lotutako gaietan erakusten duten heziketari buruz. Irakasleak ikastetxeetan ingurumen hezkuntza ezartzearen alde ageri dira, eta, oro har, ingurumen hezkuntzak eskolaren barruan izango duen tokia ikastetxe bakoitzaren orientazioaren eta prestasunaren araberakoa izango da.



Asun Fernández y Vicent Vicent.

YOLANDA LOZANO



*"Enfrentarse a la sostenibilidad en el ámbito local nos deja reflexionar sobre los procesos que transforman la sociedad en el ámbito global."*

**Daniela Tilbury**  
Universidad McQuarie



*"El desarrollo sostenible sólo se puede lograr si se comprende como un proceso de aprendizaje; es necesario saber educar por y para el futuro."*

**Michela Mayer**  
Red Ensi de la OCDE



*"La Agenda 21 permite trabajar con la escuela como modelo de pequeña ciudad para ensayar distintas soluciones a una serie de problemáticas que se suceden."*

**Hilda Weissmann**  
Ayto. de Barcelona

## Lan taldeen ondorioak

### Taldea: Ingurumen hezkuntza, ingurumen osasungarriari begira

1. Hiritarren partaidetza sustatu eta toki kudeaketan erabakiak hartzeko aukera eman.
2. Nekazaritza ekologikoa bultzatu eta produktu horien kontsumoa

sustatu ikastetxeetako jantokietan.

3. Eskola ekologikoa sustatu, eskola eta toki erkidegoaren partaidetza kontuan hartuta.
4. Lanbide profiletara egokitutako etengabeko prestakuntza ikastaroak antolatu eta

osasunari behar besteko garrantzia eman.

5. Ingurumeneko arazoen aurrean, arduraz jokatzeko duten hedabideak bultzatu, hiritarrak arazo horiez jabetu daitezela.

### Taldea: Ingurumen hezkuntza, baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsuari begira

1. Administrazioek gizartearen eskariak jaso eta sustatu behar dituzte. Horretarako, azpiegiturak sortu eta beharrezko giza baliabideez eta baliabide materialez hornitu behar dituzte.
2. Ekoizpen garbia. Enpresa guztiek ahalik eta kutsadura gutxien sortu behar lukete, ahalik eta baliabiderik gutxien kontsumitu, iraupen luzeko produktuak ekoizti, eta, ordaintan, pizgarriak jaso.
3. Merkatua moldatzeko kontsumo arduratsua. Hiritarrek presio taldeak osatu behar dituzte, kontsumo ereduak aldatzeko (ahoz aho).
4. Biztanleen artean nagusi diren ingurumen baloreei buruzko diagnostikoa egin behar da, jarrerak eta jokabideak



Un momento de la mesa redonda sobre estrategias de educación ambiental.

YOLANDA LOZANO



aldatzeko, baliabideen eta hondakinen kudeaketari begira.

5. Ingurumen-hezkuntza, hausnarketa prozesuekin, kontsumo ereduarekin eta hezkuntza zentroen kudeaketarekin lotu behar da.

## **Taldea: Ingurumen hezkuntza, naturaren eta bioaniztasunaren babesari begira**

1. Eremuak, irudiak, ekipamenduak sortu tokian-tokian, ingurumen arloko bitartekariak, aholkulariak, ekoaholkulariak... izan daitezzen (esate baterako: ingurumenari buruzko informazio bulegoa).
2. Administrazioa prestatu, zentzuzko erabakiak hartu eta parte har dezan (arduradun politikoen eta teknikarien partaidetza duten tailerren bidez). Aldi berean, administrazioaren erantzukizunak argitu, ingurumen arloko erabakiak hartzeko orduan eta erabaki horietan ez sartzeko orduan.
3. Ingurumen arloko kultur animaziorako egitasmoak (tailerrak, partaidetza sustatzeko ipuin kontalariak, baserri giroaren eta hiriaren arteko ezagutza trukea, eskolako saiakuntzak...) diseinatu eta abian jarri, sektoreen eta toki ekimenean arabera.
4. Hezkuntza erkidegoaren partaidetza bultzatu (ikasleak, irakasleak, familiak, toki administrazioa). Horretarako, foroak sortu, parte hartuz parte hartzen ikasteko (herrian, auzoan edo hirian integratutako eskolako 21 agenda).
  - A. Ingurumenari buruzko informazioa alderatu (tokian tokiko foroan, kaleko tailerren, ikerketa unitateen... bidez). Aldi berean, egitasmo bereziak sustatu hedabideetan eta edukia egiaztatu (adituak behar lirateke).
  - B. Produktuen ingurumen



Un grupo de trabajo prepara sus conclusiones para la puesta en común.

YOLANDA LOZANO

kostuari buruzko informazioa eskatu etiketetan.

## **Taldea: Ingurumen hezkuntza, lurralde orekari eta mugikortasunari begira / eguraldiaren aldaketari begira**

1. Prestakuntza estrategiak sustatu partaidetzako metodologietan. Proiektuak trukatzeko sarea eta eztabaidaguneak sortu.
2. Ingurumena zaintzeko jokabide egokiari buruzko dekalogoak sortu, ikastetxerako eta gizarterako jasangarritasun irizpideak kontuan hartuta.
3. Trukea: inguruko lagunaren eta beste erkidego zein kultura batzuen baloreak ezagutu eta aniztasunarekiko begirunea sustatu.
4. Zentzuz kontsumitzeko egitasmoa: eraginkortasunez eta zentzuz kontsumitzeko ohiturak hartu; benetan beharrezkoa zer den jakin:
  - Publizitate engainagarria dela
  - Zabor gutxiago ekoiztu
  - Energia aurreztu...
 Geurea eta hurbil duguna baloratu. Jokabide hori saritu.
5. Etxetik lanera egiten ditugun joan-etorrietako energia-kontsumoa murriztu, horretarako bidea emango duten lan-eredu berriak sustatu.

## **“Beharrezkoa da hezkuntza eraldatzea gizartea garapen jasangarrian inplika dadin”**

**Konrado Mugertza**

Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria

Herritar guztiak ingurumen hezkuntzaren estrategietan inplikarazten dituen aldakuntza egin gabe, ingurumenearekiko ohiturak nekez aldatuko dira. Gizarteak zuzenean hartu behar du parte estrategia horietan, diferentziak, hierarkiazko ezarpenak hartu beharrean, aberasgarri diren heinean balioetsiz.

Herritar eta enpresei ingurumenaren gaineko erabakiak hartzeko gaitasuna eman behar zaie; ikastetxeek ere zeinek bere proiektua garatu ahal izateko autonomia behar



dute. Ingurumena sistema konplexua da, eta berariazko prestakuntza behar da ondo ulertzeko. Bestalde, ahalmen eta bizi-kalitate kontzeptuak berriro definitu behar dira, ekarpen guztiak baloratuta. Neurritzko kontsumoaren aldeko hezkuntza zabaldu behar da, ezagutzen, izaten eta bizitzen ikasteko.